**NEZAKARITZA ETA ARRANTZA SAILA**

IRAGARKIA, «D. Francisco Javier Uriarte Ormaetxe» firma edo izen sozialari Nekazaritzako Elikagai Politika eta Industriarako zuzendariaren 2003ko apirilaren 29ko Ebazpena jakinarazteko. Izan ere, ebazpen horren bidez «Chacolí de Bizkaia-Bizkaiko Txakolina» Jatorrizko Deiturari buruzko 5/2002 zehapen-espedientea ebatzi da. 12622

# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOKO SAILA

### Zk-3852

AGINDUA, 2003ko ekainaren 11koa , Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, turismoa garatzeko interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko Gauzatu-Turismo programa garatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-sektoreari buruz egindako diagnostikoak adierazten duenez, turismo-eskaintzaren dibertsifikazioa oso urria da hainbat turismo-arlotan. Beste honako hau ere adierazten du diagnostiko horrek: Euskadik, turismo-helburu gisa, hainbat aukera duela. Izan ere, elkarren oso osagarriak diren, ondo komunikatuta dauden eta berebiziko kultura berezitasuna duten turismo-baliabideen aniztasuna, aberastasuna eta ahalmena ditu. Horrek guztiak, bada, turismoa garatzeko eta dibertsifikatzeko ahalmen itzela dugula esan nahi du, eta sustatu beharra dago ahalmen hori.

Turismoaren garapenerako interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko GAUZATU-Turismoa izeneko programa baliabide egokia izango da ondorengo aukera hauek garatzeko, Ekonomia Sustatzeko Erakunde arteko Planean zehaztutako turismo-alorreko programetatik abiatuta:

1. Euskal enpresa-sarea gauzatzea.

2. Euskal Herriko turismo-eskaintzaren kalitatea eta lehiakortasuna hobetzea.

Jarduera-programa honen bidez sustatu nahi diren inbertsio-proiektuak erabat loturik daude turismo-eskaintzaren baitan oraindik behar bezala garatu gabe dauden turismo-segmentuetan turismo-enpresa berriak sortzearekin. Hori guztia turismo-produktua eta

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA**

ANUNCIO por el que se notifica a la firma o razón social «D. Francisco Javier Uriarte Ormaetxe» la Resolución del Director de Política e Industria Agroalimentaria, de fecha 29 de abril de 2003, por la que se resuelve el expediente sancionador 5/2002 de la Denominación de Origen «Chacolí de Bizkaia-Bizkaiko Txakolina». 12622

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-3852

Orden de 11 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla el programa Gauzatu-Turismo, de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico.

El diagnóstico realizado sobre el sector turístico Vasco, denota una escasa diversificación de la oferta para los diferentes segmentos turísticos, al mismo tiempo que señala que el destino turístico Euskadi cuenta con una serie de oportunidades emanadas de la diversidad, riqueza y potencial de unos recursos turísticos con elevada complementariedad, que se encuentran bien comunicados y cuentan con una fuerte singularidad cultural. Todo esto supone un enorme potencial para el desarrollo y diversificación de la oferta turística que es necesario fomentar.

El programa GAUZATU-Turismo, de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico, se constituye como instrumento para el desarrollo de estas potencialidades a partir de los programas del sector turístico definidos en el Plan Interinstitucional de Promoción Económica enfocados hacia el:

1.º Desarrollo del tejido empresarial vasco.

2.º La mejora de la calidad y competitividad de la oferta turística vasca.

Los proyectos de inversión que se desean promover desde este programa de actuación estarán vinculados con la creación de nuevas empresas turísticas en segmentos no suficientemente desarrollados de la oferta, tanto desde el punto de vista del producto turístico como desde

turismo-lurraldea kontuan hartuta egingo da, eta turismo-eskaintza lehiakor eta kalitatezkoa garatuz eta dibertsifikatuz, oraingo eta geroko eskabideari aurre egiteko.

GAUZATU–Turismo baliabide hori 2000ko abenduaren 27ko aginduaren bidez sortu zen lehenbiziko aldiz. Berari esker, turismoaren inguruko azpiegiturak eta ekipamenduak modernizatu egin dira eta, era berean, turismo-enpresa berritzaileak teknologiaren esparruan garatu egin dira. Aipatu programa abian dagoen urte hauetako esperientziaren bidez, finantza-baliabide horien bideragarritasuna eta sektore-interesa froga daiteke; izan ere, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzaren ohiko ereduaren aurrean baliabide hauek izaten dituzten enpresa-proiektuetako arriskuak banatzera bideratuta daude. Alabaina, inbertsioen tipifikazioan, laguntzen izapidetzean eta aurrerakin itzulgarriek dituzten ezaugarrietan hasierako aginduari dagokionez hobe daitezkeen alderdiak ere antzeman dira. Hobekuntza horien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legean jasotako Ekonomia Sustatzeko Funtsean sartu behar dira laguntzak. Funts hori Garapenerako Euskadiko Kapital-Sozietateak (SOCADE, S.A.) kudeatuko du. Turismo-enpresen ezaugarriak kontuan hartuz, gainera, ETEak enpresa txiki eta ertainetan banatzea ezabatu da.

Inbertsioei dagokienez, eraikin berria eskura daiteke, baita urbanizazioa eta lur-mugimenduak ere; eraikuntza- edo birgaitze-obrarako garrantzitsua baita. Azkenik, berezko baliabideen ehunekoak jarri beharra baztertu da eta laguntzak, oro har, kuota finkoen itzultzea ezarri da itzulketa aldakorra ezabatuz. Beraz, onuradunarentzat hobekuntzak izango dira horiek guztiak.

Eskabideak izapidetu eta baloratzeko ezartzen den prozedurari dagokionez, SPRIari (Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua) zeregin gehiago ematen zaizkio eskabideen azterketa errazago egin ahal izateko.

Agindu honetan arautzen den programak ekonomia sustatzeko laguntza-ildoak ezarri zituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuak xedatutakoa garatzen du. Azken honen Lehen Xedapen Gehigarrian, hain zuzen ere, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuari ahalmena ematen zaio berori garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hori dela bide, hauxe

el punto de vista del territorio facilitando el desarrollo y diversificación de una oferta competitiva y de calidad capaz de responder a la demanda actual y futura.

Este instrumento GAUZATU – Turismo fue creado por primera vez por Orden de 27 de diciembre de 2000 y ha servido para apoyar la modernización de infraestructuras turísticas y sus equipamientos, así como el desarrollo tecnológico de empresas turísticas innovadoras. La experiencia de estos años de funcionamiento permite confirmar la viabilidad e interés sectorial de estos instrumentos financieros orientados a compartir el riesgo de los proyectos empresariales frente a las fórmulas clásicas de subvención a fondo perdido. Sin embargo también se ha detectado cuestiones relativas a la tipificación de las inversiones, a la tramitación de las ayudas y a las características de los anticipos reintegrables, que pueden ser mejoradas respecto a los objetivos planteados en la Orden inicial. Estas mejoras se refieren a la incorporación de las ayudas al Fondo de Promoción Económica contemplado en la Ley por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que será gestionado por la Sociedad Capital Desarrollo de Euskadi, SOCADE, S.A. Por las características de las empresas turísticas se ha eliminado la división de PYMEs entre pequeña y mediana empresa.

Respecto a las inversiones, se incluye la posibilidad de adquirir un edificio de nueva construcción, así como también se ha incluido la urbanización y movimiento de tierras, ya que se considera consustancial a la propia obra de construcción o rehabilitación. Por último se ha eliminado el requisito del porcentaje de recursos propios, y se ha establecido con carácter general la devolución de la ayuda en cuotas fijas, eliminando la devolución variable, lo que supone una mejora para el beneficiario.

Respecto al procedimiento establecido para tramitar y valorar las solicitudes se atribuyen mayores funciones a la SPRI, para facilitar el análisis de las solicitudes.

El programa de ayudas regulado en la presente Orden desarrolla lo dispuesto en el Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas Líneas de Ayudas con fines de Turismo, en cuya Disposición Adicional Primera se faculta al Consejero de Industria, Comercio y Turismo para dictar las disposiciones que sean precisas para su desarrollo y ejecución.

En su virtud,

XEDATU DUT:

I. kapitulua
Xedapen orokorrak

*1. artikulua.–* Xedea.

Agindu honen xede da ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuko 28. artikulua garatzea. Artikulu horretan turismoaren garapenerako interes estrategiko berezia duten enpresak sortzen eta bertan inbertitzen laguntzeko Gauzatu-Turismoa izeneko programak ekonomia sustatzeko zehazten dituen laguntzen ildoak ezartzen dira.

2. artikulua.– Ekonomia baliabideak.

1. Aurreko artikuluan adierazitako helburura zuzendutako ekonomia baliabideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen duen Legean azaldutako Ekonomia Sustatzeko Funtsera zuzendutakoetatik eratorritakoak izango dira; funts hori Garapenerako Euskadiko Kapital-Sozietateak (SOCADE, S.A.) kudeatuko du aipatu arauan ezarritako moduan.

2. Administrazio-ebazpen baten bidez, laguntzak ukatuko dira, baldin eta laguntza horiek urteko deialdian azaldutako zenbatekoak gainditzen badituzte. Edonola ere, zenbateko horiek ezingo dute gainditu Ekonomia Sustatzeko Funtsera zuzendutakoak. Horregatik guztiagatik, programa hau indarrean dagoen bitartean, ekitaldi ekonomiko batean aipatu Funtsean laguntzak emateko dauden baliabideak bukatzen badira, horren berri emateko, Turismo Sailburuordetzak administrazio-ebazpen bat emango du. Ebazpenean, baliabideak zein egunetan bukatu diren adieraziko da. Gainera, ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Aurreko ekitaldi ekonomikoan aurkeztutako inbertsio-proiektuak, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean emateko ezartzen den muga gainditzeagatik laguntzarik lortu ez dutenak eta lehen aurreikusitako eran ukatutakoak, hurrengo ekitaldiko Funtsaren baliabideei egotz dakieke, betiere, proiektu horiek laguntzak lortzeko Agindu honetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte. Horretarako, eskabide berria aurkeztu beharko da. Hala ere, lehentasunari dagokiolarik, ukatutako lehen eskabidearen data hartuko da kontuan.

3. Laguntzak era antolatuan esleituko dira, bakoitzak bere espedientea osatutakoan.

*3. artikulua.–* Erakunde onuradunak.

1.– Agindu honetan jasotzen diren laguntzak enpresa txiki eta ertainek jaso ditzakete (ETE).

2.– Honako baldintzak betetzen dituzten enpresak joko dira enpresa txiki eta ertaintzat:

DISPONGO:

Capitulo I
Disposiciones Generales

*Artículo 1.–* Objeto.

La presente Orden tiene por objeto desarrollar el artículo 28 del Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas líneas de ayudas con fines de promoción económica, que establece el Programa GAUZATU-Turismo, de ayudas a la inversión y a la creación de empresas de especial interés estratégico para el desarrollo turístico.

*Artículo 2.–* Recursos Económicos.

1. Los recursos económicos dedicados a la finalidad del artículo anterior procederán de los destinados al Fondo de Promoción Económica, contemplado en la Ley por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que será gestionado por la Sociedad Capital Desarrollo de Euskadi, SOCADE, S.A. de la forma establecida en la citada norma

2. Mediante resolución administrativa se procederá a denegar las ayudas en el caso de que éstas superen las cuantías especificadas en la convocatoria anual correspondiente. Dichas cuantías no podrán superar, en ningún caso, las destinadas al Fondo de Promoción Económica. Por todo ello, mientras se encuentre vigente el presente programa si en un ejercicio económico se agotan los recursos existentes en dicho Fondo para la concesión de las ayudas, al objeto de dar publicidad a esta circunstancia, por la Viceconsejeria de Turismo se emitirá resolución administrativa en la que se señalará la fecha en que se ha producido el agotamiento de los recursos, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco.

Los proyectos de inversión presentados en el ejercicio económico precedente, que no hayan obtenido ayudas por excederse del límite establecido para conceder durante cada ejercicio presupuestario y que hayan sido denegados en la forma anteriormente prevista, se podrán imputar a los recursos del Fondo del ejercicio siguiente, siempre que los citados proyectos cumplan con los requisitos establecidos en la presente Orden para la obtención de las ayudas, para lo cual deberán presentar una nueva solicitud, si bien, a los efectos de prioridad se conservará la fecha de la primera solicitud denegada.

3. La concesión de las ayudas se irá realizando ordenadamente en función del momento en que el expediente esté completo.

*Articulo 3.–* Entidades Beneficiarias.

1.– Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente Orden, las Pequeñas y Medianas Empresas (PYME).

2.– Se entenderán por Pequeñas y Medianas Empresas (PYME) aquéllas que cumplan los siguiente requisitos:

– 250 langile baino gutxiago dituztenak.

– Urteko negozio-bolumena 40 milioi euro baino gehiagokoa ez izatea. Edo, bestela, urteko balantze orokorra 27 milioi euro baino gehiagokoa ez izatea.

– Aurreko betekizunetakoren bat betetzen ez duen (edo duten) beste enpresa batek (edo batzuek) enpresa horretan %25eko partaidetza edo hori baino handiagoa ez izatea, zuzenean edo zeharka.

Aurrez adierazitakoari buruz beste edozer interpretatzeko, 1996ko apirilaren 3ko Batzordearen 96/280/CE Gomendioan enpresa ertain eta txikien definizioaz esandakoa (1996ko apirilaren 30eko EEAO, L107), edo hori ordezkatzen edo aldatzen duten xedapenak hartuko dira kontuan.

*4. artikulua.*– Kanpoan geratzen diren erakundeak.

1.– Erakunde onuradunetatik kanpo geldituko da Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde arteko Administraziokoa den edozein erakunde.

2.– Agindu honetan arautako laguntzak nahiz diru-laguntzak enpresa onuradunei onartu eta, hala badagokie, ordaindu aurretik, amaitu egin behar dira prozedura hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako antzeko laguntzak edo diru-laguntzak direla medio laguntzak itzultzeko edo zigortzeko hasi diren prozedurak, baldin eta halako prozeduraren baten izapideak aurrera badoaz une horretan.

*5. artikulua.*– Diruz lagun daitezkeen inbertsio-proiektuak eta bestelako jarduerak.

1.– Laguntzak emango zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-sektorean inbertsioak egiten dituztenei, batez ere, ondorengo jarduerak egiteko inbertitzen dutenean:

a) Hotelak: eraikin berria egin edo eskuratzea hotel bezala erabiltzeko; eraikin bat birgaitu edo modernizatzea hotel bezala erabiltzeko; eraikita dauden hotelen instalazioak eta ekipamenduak handitzea.

Horretarako, ondoko bost baldintzetakoren bat bete beharko da:

1- Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteari buruzko 16/1994 Legearen arabera deklaratuta edo deklaratuak izateko bidean dauden Parke naturaletan edo horietatik hurbileko udalerrietan egin behar dira, edo Urdaibaiko Biosfera Erreserban (Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko 5/1989 Legearen arabera deklaratua).

2- Turismora bideratutako udalerrietan egin behar dira, betiere, Lurralde Antolamenduaren Arteztarauetan proposatutako bigarren eskuko etxebizitzetarako adierazleak (Agindu honetako I. eranskinean aipatzen dira) kontuan hartuta. Dena den, zerrenda hori alda daiteke laguntzen urteko deialdian.

– Que emplee a menos de 250 trabajadores.

– Que su volumen de negocio anual no supere los 40 millones de euros, o bien que su balance general anual no rebase los 27 millones de euros.

– Que no se halle participada directa o indirectamente en un 25%, o mas, por otra empresa o conjuntamente por varias de ellas que no reúna alguno de los requisitos anteriormente expuestos.

Para cualquier otra interpretación de lo señalado anteriormente, se tendrá en cuenta lo establecido en la Recomendación 96/280/CE de la Comisión, de 3 de abril de 1996, sobre la definición de pequeñas y medianas empresas (DOCE, L107, de 30 de abril de 1996), o las disposiciones que la sustituyan o modifiquen.

*Artículo 4.*– Entidades excluídas.

1.– Quedan excluídas como beneficiarias las Entidades que constituyen la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– La concesión y, en su caso, el pago a las empresas beneficiarias de las ayudas reguladas en la presente Orden quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 5.*– Proyectos de inversión y otras actuaciones subvencionables.

1.– Podrán ser objeto de ayuda las inversiones que se realicen en el sector turístico de la Comunidad Autónoma del País Vasco y que se destinen a algunas de las actividades siguientes:

a) Hoteles: construcción o adquisición de un edificio nuevo, para destinarlo a uso hotelero; rehabilitación o modernización de un edificio ya existente para su uso hotelero; ampliación de las instalaciones y equipamientos de hoteles ya existentes.

Para ello se deberá cumplir alguna de las siguientes cinco condiciones:

1ª– que vayan a asentarse en municipios incluidos o cercanos a Parques Naturales, declarados o en estudio de declaración según la Ley 16/1994, de Conservación de la Naturaleza de la Comunidad Autónoma del Pais Vasco, o con la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, declarada según la Ley 5/1989, de Protección y Ordenación de la RB de Urdaibai.

2ª– que vayan a asentarse en municipios de orientación turística según indicadores de segunda residencia propuestos en las Directrices de Ordenación Territorial y señalados en el Anexo I a esta Orden, relación que podrá verse modificada en la convocatoria anual de las ayudas.

3- Gizarte, ekonomia eta hirigintza aldetik degradazio handia duten eta indarrean dauden erakunde arteko planen bat duten udalerrietan egin behar dira. Udalerri horiek Agindu honetako II. eranskinean jasotzen dira. Dena den, zerrenda hori alda daiteke laguntzen urteko deialdian.

4- Hotel espezializatuak izan behar dute, Hotel-establezimenduen antolaketari buruzko maiatzaren 29ko 102/2001 Dekretuaren arabera, hondartza, bainuetxe, landetxe edo antzeko balio arkitektonikoa dutenen barruan.

5- Instalazioetan kirol-, aisialdi- edo osasun-jarduera osagarriak izan behar dituzte, hala nola, talasoterapia, golf edo pitch&putt-a; baita hipika-instalazioak, edo turismo aktibo edo kulturaleko jarduera-zentroak ere. Dena den, horiek guztiak jendearentzat irekiak izan beharko dira.

b) Landetxeak: eraikin berri bat egitea edo lehendik dagoena birgaitzea landetxe bezala erabiltzeko. Espainiako Turismo Kalitaterako Institutuaren «Landetxeetarako Kalitate Sistemaren» arabera, azpiegitura eta ekipamenduen arauan higiene-zerbitzuak, guztientzako zerbitzuak eta gela-banaketak direla-eta, jasotzen diren gutxieneko estandarrak beteta diseinatutako proiektuak baino ez dira onartuko.

c) Turismo-apartamentuak: eraikin berri bat egitea edo lehendik dagoena birgaitzea turismo-apartamentu bezala erabiltzeko.

d) Kanpinak: eraikitzeko baimena duten kanpinak egitea. Lehendik dauden kanpinak hobetzea; horretarako, harrera-eraikinetarako sarbide eta bideetan, higiene-zerbitzuetan, guztientzako bestelako instalazioetan eta bungalowetan inbertsioak eginez.

e) Lehendik dauden hoteletako egiturak edo ekipamenduak modernizatzea, turismo-ekipamenduak modernizatzea eta berritzea ostatu turistikoetan. Gainera, Informazioaren Gizartearen eta energiaren hobekuntza eta eraginkortasunaren barruan koka daitezkeen teknologiak izan beharko dituzte.

f) Turismo-enpresak edota -produktuak sortzea edo handitzea natura-, aisialdi- edo osasun-jarduera aldetik turismorako erakargarriak diren sektoreetan; hala nola, golf-zelaiak, pitch&putt edo antzekoak, zentro termalak, talasoterapia, natura, turismo aktibo eta kulturaleko jarduerak. Horiek guztiak jendearentzako irekiak egon beharko dira.

2.– Halaber, gehienez 6.000 euro-ko laguntza emango zaie aurreko atalean aipatzen diren proiektuen bideragarritasun- edota finantza-plana aldez aurretik egiteagatik, betiere, plana gai horietan adituak diren profesional lokabeek egin badute.

3.– Nolanahi ere, ETEek Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu beharko dituzte lagungarriak diren inbertsio-proiektuak. Jendeari zuzenduta dauden proiek-

3ª– Que vayan a localizarse en municipios ubicados en comarcas en las que, existiendo importantes niveles de degradación socioeconómica y urbanística, cuenten con planes interinstitucionales en vigor. Estos municipios aparecen relacionados en el Anexo II a la presente Orden, relación que podrá verse modificada en la convocatoria anual de las ayudas.

4ª- Que estén conceptuados como Hoteles especializados, según el Decreto 102/2001, de 29 de mayo, sobre Ordenación de Establecimientos Hoteleros, dentro del grupo de hoteles de playa, balneario, rurales o de singular valor arquitectónico.

5ª– Que incluyan en sus instalaciones actividades complementarias deportivas, de ocio o salud tales como talasoterapia, golf o pitch&putt, instalaciones de hípica, o centros de actividades de turismo activo o cultural, todas ellas de acceso público.

b) Casas Rurales: construcción de un edificio o rehabilitación de uno ya existente para su uso como casa rural. Sólo serán admisibles aquellos proyectos que cumplan los estándares mínimos recogidos en la Norma de Infraestructuras y Equipamientos, del Instituto para la Calidad Turística Española, «Sistema de Calidad para Casas Rurales» relativos a servicios higiénicos, servicios comunes y distribución de las estancias.

c) Apartamentos turísticos: construcción de un edificio o rehabilitación de uno ya existente para su uso como apartamentos turísticos.

d) Campings: construcción de campings que dispongan de autorización de instalación. Mejora de campings existentes, mediante inversiones referidas a infraestructuras como accesos y viales a edificaciones en general como recepción, servicios higiénicos, otras instalaciones comunes y bungalows.

e) Modernización de las estructuras o equipamientos de hoteles ya existentes, modernización y renovación de equipamientos turísticos en alojamientos turísticos que introduzca tecnologías enmarcadas en la Sociedad de la Información y en la mejora y eficiencia energética.

f) Creación o ampliación de empresas y/o productos turísticos en sectores de actividades de naturaleza, ocio o salud de reconocido atractivo turístico, como campos de golf, pitch&putt o similares, centros termales, talasoterapia, actividades de naturaleza, de turismo activo y cultural, todas ellas de acceso público.

2.– Será también objeto de ayuda, con un máximo de 6.000 euros, la realización previa del plan de viabilidad y/o financiero de los proyectos del apartado anterior, siempre que esté realizado por profesionales independientes especializados en dichos temas.

3.– En todo caso, las PYMEs deberán localizar los proyectos de inversión objeto de ayuda dentro del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En

tuetan, jende oro sartzen utziko da, batez ere, turismo handia duten sasoi, gune eta tokietan.

4- Proiektua egokitzat jotzeko Batzorde bat eratuko da. Batzorde horretan honako hauek izango dira kide: batzordeburu gisa jardungo duen Turismoko zuzendaria, Turismo Zuzendaritzako teknikari bat, Lurralde Historiko bakoitzeko turismo-koordinatzaileak, Enpresak Garatzeko zuzendaria eta idazkari gisa jardungo duen GAUZATU-Turismo programako kudeaketaren arduraduna, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, S.A.n (SPRI). Bilkurak egiteko, Batzordearen eraketa baliozkoa izango da batzordeburu, idazkari eta gainerako kideetako bat edo batzuk bilduz gero. Batzordearen jardunbideari dagokionez, atal honetan ezartzen ez denerako, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean xedatutakoa ezarriko da.

*6. artikulua.*– Kanpoan geldituko diren inbertsio-proiektuak.

1.– Kanpoan geldituko dira errepideetako hotelak egin edo modernizatzeko proiektuak, betiere, hotel-establezimenduen antolaketari buruzko 2001eko maiatzaren 29ko 102/2001 Dekretuaren arabera izaera hori dutenak.

2.– Era berean, kanpoan geldituko dira hiru hiriburuetakoren bateko hoteletan egiten diren inbertsio-proiektuak, 5.1.f) idatz-zatian azaltzen diren inbertsioak izan ezik.

*7. artikulua.*– Laguntza jaso dezaketen inbertsioak.

1.– Laguntzak kalkulatu ahal izateko, ondorengo hauek joko dira laguntza jaso dezaketen inbertsiotzat: enpresako aktibora gehitzen diren aktibo finkoetan eginikoak, gutxienez 30.000 euro-ko zenbatekoarekin eta inbertsioa egiteko gehienez 24 hileko epearekin, eta gainera, Agindu honetan eta agindu hori garatzen duten xedapenetan xedatutakoa aplikatzean bete beharreko baldintzez gain, beste baldintza hauek ere betetzen dituzten inbertsioak:

a) Ondorengo kategorietakoren batekoa izatea. Kategoria horiek Kontabilitateko Plan Orokorrean ezartzen dira (abenduaren 20ko 1643/1990 Errege Dekretuan jasotakoa), puntu hauetan:

– 215 Aplikazio informatikoak

– 221 Eraikuntzak (urbanizazioa eta lur-mugimenduak barne)

– 222 Instalazio teknikoak

– 223 Makinak

– 224 Tresneria

aquellos proyectos que se señalen como de acceso publico, deberá ser permitida la entrada al público en general, especialmente, en épocas, zonas o situaciones de singular significación turística.

4- Para la consideración de la adecuación del proyecto se crea una Comisión compuesta por el Director de Turismo, que actuará como presidente, un técnico de la Dirección de Turismo, los coordinadores de turismo de cada Territorio Histórico, el Director de Desarrollo Empresarial y el responsable de gestión del programa GAUZATU-Turismo en la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI), que actuará como secretario. La constitución de esta Comisión será válida a los efectos de celebración de sesiones con la presencia del presidente, secretario y uno o más de los restantes vocales. En todo lo relativo al funcionamiento de la Comisión, no previsto en este apartado, se aplicará supletoriamente lo dispuesto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 6.*– Proyectos de inversión excluidos.

1.– Quedan excluidos los proyectos de creación o modernización de hoteles de carretera, considerados como tales según el Decreto 102/2001, de 29 de mayo de 2001, sobre Ordenación de Establecimientos Hoteleros.

2.– Igualmente, se excluyen los proyectos de inversión en hoteles ubicados en alguna de las tres capitales, excepto para las inversiones contempladas en el apartado 5.1.f)

*Artículo 7.*– Inversión susceptible de apoyo.

1.– Se considera inversión susceptible de apoyo a efectos del cálculo de las ayudas, las realizadas en activos fijos que se incorporen al activo de la empresa, como mínimo por importe de 30.000 euros, que tengan un periodo máximo de ejecución de 24 meses y que cumplan, además de los que fueran de aplicación en virtud de lo dispuesto en la presente Orden y sus disposiciones de desarrollo, los requisitos que, a continuación, se indican:

a) Que se trate de alguna de las siguientes categorías, según la definición que, al efecto, establece el Plan General de Contabilidad, recogido en el Real Decreto 1643/1990, de 20 de Diciembre, en los epígrafes siguientes:

– 215 Aplicaciones informáticas

– 221 Construcciones (incluidos urbanización y movimientos de tierras)

– 222 Instalaciones técnicas

– 223 Maquinaria

– 224 Utillaje

– 225 Bestelako instalazioak

– 226 Altzariak

– 227 Informazioa prozesatzeko ekipoak

– 228 Garraio-elementuak

– 229 Ibilgetutako beste material batzuk

Aktiboen prezioa bere balio «garbia» izango da, hau da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kendu eta gero fakturatutako zenbatekoa.

228 puntuari dagokionez, laguntza jaso dezakete, baina elementu horiek proiektuaren osotasunerako behar-beharrezkoak direnean bakarrik.

Landetxeak egiteko proiektuetan, ez dira diruz lagunduko jabearen beraren etxebizitzan egindako inbertsioak.

221 puntua kalkulatzeko, ondorengo balioak hartuko dira kontuan:

– Eraikina edo horren atalen bat eraiki berri denean, bere balioa, baina lurraren balioa kenduta. Eraikina edo horren atalen bat erosi denean, soilik salerosketako balioa, lurraren balioa kenduta eta zergak eta komisioak kanpoan utzita.

– Aurretik beste erabilera batzuk izan dituzten eraikinean kokatuko diren establezimenduetan, turismo-establezimendu bezala birgaitzeko berritze-lanen zenbatekoa.

Nolanahi ere, aktiboek zuzeneko lotura izan beharko dute enpresaren gizarte-helburua den jarduerarekin; hala ere, establezimenduen kudeaketa beste batzuei laga dakieke.

b) Gutxienez hiru urteko amortizazio-epea ezarrita izatea, eta enpresaren aktiboa, gutxienez, 5 urtez mantentzea.

c) Finantza-alokairuaren bidez finantzatutako inbertsioak laguntza jaso dezake, baldin eta enpresak dagokion erosketa-aukera gauzatzeko konpromisoa berariaz hartzen badu.

d) Diruz lagun daitezkeen aktibo inmaterialak onuradunaren establezimenduan bakarrik ustiatu beharko dira, aktibo amortizagarriko elementutzat hartuko dira, hirugarren bati merkatuko baldintzetan erosiak izango dira, eta enpresaren aktiboan, gutxienez, bost urteko epean mantendu beharko dira.

e) Ez dira diruz lagunduko bazkideek generotan kapitalera egindako ekarpenak.

f) Inolaz ere ez da inbertsio bezala hartuko, turismo-establezimendu baten salerosketako balioa.

2.– Talde bera osatzen duten enpresa edo baltzuen aktiboak erosteko egiten diren inbertsioak, aktiboak edo pasiboak, gutxienez, bere kapital sozialaren %25a diren inbertsioak, Saileko organoei berariaz jakinarazi

– 225 Otras instalaciones

– 226 Mobiliario

– 227 Equipos para procesos de información

– 228 Elementos de transporte

– 229 Otro inmovilizado material

Se considerará como precio de los activos su valor «neto», entendiéndose como tal el importe facturado una vez deducido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

Respecto al epígrafe 228, sólo serán susceptibles de apoyo cuando su inclusión sea esencial para la integridad del proyecto.

En los proyectos de creación de casas rurales, no serán objeto de subvención las inversiones realizadas en las zonas de la vivienda destinadas al uso exclusivo del titular.

Para computar el epígrafe 221, citado, se tomarán los siguientes valores:

– En el caso de edificios, o partes del mismo de nueva construcción, el importe del valor de la misma, excluido el valor del terreno. En el caso de adquisición del edificio o parte del mismo, exclusivamente su valor de compraventa, descontado el valor del suelo y excluidos impuestos y comisiones.

– En el caso de establecimientos que vayan a ubicarse en edificios que hayan tenido usos anteriores, el importe de las obras de reforma que se realicen para su habilitación como establecimiento turístico.

En todo caso, los activos deberán estar directamente relacionados con la actividad que constituye el objeto social de la empresa, aunque puede cederse la gestión del establecimiento a terceros.

b) Que tengan establecido un periodo mínimo de amortización de tres años, debiendo permanecer, al menos, 5 años en el activo de la empresa.

c) La inversión financiada mediante arrendamiento financiero, será considerada susceptible de apoyo, siempre y cuando la empresa se comprometa expresamente a ejercitar la opción de compra correspondiente.

d) Los activos inmateriales subvencionables deberán ser explotados exclusivamente en el establecimiento del beneficiario, serán considerados elementos del activo amortizables, serán adquiridos a un tercero a las condiciones de mercado y deberán permanecer en el activo de la empresa un periodo mínimo de cinco años.

e) No serán subvencionables las aportaciones a capital en especie por parte de alguno de los socios.

f) En ningún caso se computará a efectos de inversión, el valor de la mera compra-venta de un establecimiento turístico.

2.– Las inversiones provenientes de la adquisición de activos de empresa o sociedades que formen parte del mismo grupo, entendiéndose como tales aquellas cuya vinculación activas o pasiva sea al menos de un 25% de

beharko zaizkie eta kanpotik kontrolatutako auditorien bidez balioztatuko dira.

II. kapitulua
Laguntzen modalitate eta ezaugarriak.

*8. artikulua.–* Laguntzen modalitatea.

Agindu honi jarraituz emango diren laguntzak aurrerakin itzulgarriak izango dira, betiere, egin beharreko inbertsioekiko proportzionalak. Proiektua bukatzen denean laguntza horiek urtero itzulgarriak izan beharko dira (bost urtez), urtebeteko ezaldiaren ondoren hasiko den kuota finkoaren bitartez.

*9. artikulua.–* Itzultzekoak diren aurrerakinen ezaugarriak.

Aurrerakin itzulgarriak laguntza jaso dezakeen inbertsio osoaren %30eraino irits daitezke, 11. artikuluan xedatutakoaren arabera. Dena den, ezingo da inolaz ere 900.000 euro-ko muga gainditu.

*10. artikulua.–* Laguntzen zenbatekoak.

Onuradunek honako laguntza hauek jaso ditzakete:

a) Laguntzeko den inbertsioaren %30eko aurrerakin itzulgarriak.

b) Bideragarritasun- edota finantza-planaren %100eko aurrerakin itzulgarriak, 6.000 euroraino.

*11. artikulua.–* Laguntza-pilaketak eta mugak.

Beste administrazio publikoek edo erakunde pribatuek agindu honetan jasotako laguntzen helburu berarekin emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira baldin eta, osotara, eskualdeko helburua duten Estatuaren laguntzei buruzko Jarraibideen 4.8. idatz-zatian (1998ko martxoaren 10eko EEAO, C74) ezarritako muga gainditzen ez badute. Halako laguntzarik jasoz gero, horren berri eman beharko zaio Turismo Zuzendaritzari.

Halaber, muga hori gainditzen bada, soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio agindu honen babespean jasotako laguntzari.

III. kapitulua
Prozedura

*12. artikulua.–* Prozedura hastea.

Agindu honen bidez arautako laguntzen jendaurreko deialdia urtero egingo da. Diru-laguntzak ematean, oinarri hauek erabiliko dira: publizitatea, lehia eta objektibotasuna.

Turismoko sailburuordeak egingo du deialdia eta bertan adieraziko du ekitaldi horretan eman beharreko laguntzen muga zein den eta eskabideak zein epe eta lekutan aurkeztu behar diren; ezinbestekoa izango da azken horien artean Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua (SPRI, S.A.) egotea. Onartutako in-

su capital social, deberán ser comunicadas expresamente a los órganos del Departamento y serán valoradas en base a auditorias de control externo.

Capítulo II
Modalidad y características de las ayudas.

*Artículo 8.–* Modalidad de las ayudas.

Las ayudas a conceder, en el marco de la presente Orden, adoptarán la forma de anticipos reintegrables, proporcionales a las inversiones a realizar, que habrán de ser reintegrados anualmente, durante cinco años, una vez finalizado el proyecto, mediante una cuota fija que se iniciará tras un año de carencia.

*Artículo 9.–* Características de los anticipos reintegrables.

Los anticipos reintegrables podrán ascender hasta el 30% de la inversión susceptible de apoyo, según lo dispuesto en el artículo 11 y un límite que, en ningún caso, podrá superar 900.000 euros.

*Artículo 10.–* Cuantías de Ayudas.

Las beneficiarias podrán optar a las siguientes ayudas:

a) Anticipos reintegrables del 30% de la inversión susceptible de apoyo, o

b) Anticipos reintegrables del 100% del plan de viabilidad y/o financiero hasta 6.000 euros.

*Artículo 11.–* Acumulación y límites de las Ayudas.

Las ayudas otorgadas por otras administraciones públicas o por entidades privadas que tengan el mismo objeto que las recogidas en la presente Orden, serán compatibles en cuanto no superen en su conjunto el límite establecido en el apartado 4.8 de las Directrices sobre ayudas del Estado de finalidad regional (DOCE, C74, de 10 de marzo de 1998), debiéndose notificar dichas ayudas a la Dirección de Turismo.

En caso de superarse dicho límite, la ayuda concedida en virtud de esta Orden se minorará en la cantidad correspondiente al exceso.

Capitulo III
Procedimiento

*Artículo 12.–* Iniciación del procedimiento.

Las ayudas reguladas por esta Orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad.

La convocatoria se realizará por la Viceconsejera de Turismo y precisará el importe máximo de ayudas a conceder durante el ejercicio, el plazo para la presentación de las solicitudes y los lugares para su presentación, debiéndose incluir necesariamente, entre estos, a la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A.

bertsioen nahiz aurrerakin itzulgarrien gehienezko kopurua Turismoko sailburuordearen urteko deialdian eguneratu ahal izango da, KPIak dituen aldaketak kontuan izatearren.

*13. artikulua.*– Eskabidea.

1.– Agindu honetan ezarritakoaren arabera aurreikusitako laguntzak jasotzeko onuradunak diren enpresek eskabidea eta gainerako agiri osagarriak Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuan (SPRI, S.A.) aurkeztu beharko dituzte, laguntzak emateko aginpidea duen organoari zuzenduta, edo bestela Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean zehaztean diren tokietan, Turismoko sailburuordeak urteko deialdia egiteko ebazpenean finkatzen duen epean. Onuraduna izateko baldintzak diru-laguntza ordaindu arte iraun beharko du.

2.– Turismoko sailburuordeak laguntzen deialdia egiteko ebazpena eman eta gero, eskabide-eredua eta formularioak Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuan (SPRI, S.A.) eskuratu ahal izango dira, edo interneten, www.eragintza.net, helbidean.

3.– Eskabideak inbertsio-proiektua hasten den ekitaldi ekonomikoan aurkeztu beharko dira, inbertsioa urtekoa edo urte anitzekoa den azalduz; urte anitzekoa bada ekitaldi bakoitzerako aurreikusi diren zenbatekoak ere aurkeztu beharko dira. Eskabide horietan, gainera, ezin izango dira aurreko ekitaldietan egindako inbertsioak sartu, agindu honen 2. artikuluan adierazitako kasuan izan ezik.

*14. artikulua.*– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Enpresaren informazio orokorra bilduko duen eskabidea bete beharko du enpresa eskatzaileak, baita ondokoak ere:

a) Inbertsio-proiektuaren txosten zehatza, eta bertan honakoak sartu beharko dira: ekonomia, finantza eta lan arloetako bideragarritasun-plana, hori gauzatzeko epeak eta (hala badagokio) establezimenduaren proiektu arkitektonikoa, memoria eta planoekin.

b) Eratze-eskritura, Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia eta eskatzailearen ahalordearen fotokopia; agiri hori Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak lehendik daukanean eta ahalduna lehengo bera denean izan ezik.

c) Azken ekitaldiko kontu ikuskatuen kopia edo, halakorik ezean, Sozietateen gaineko Zergaren edo, hala badagokio, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken bi aitorpenak.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutan diru-laguntzak eskuratu dituztenek zerga-mailako obligazioak bete dituztela egiaztatzeari buruzko Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko

(SPRI). El límite máximo, tanto de las inversiones admitidas como de los anticipos reintegrables, podrá ser actualizado en la convocatoria anual del Viceconsejera de Turismo, con el objetivo de tener en consideración las variaciones del IPC.

*Artículo 13.*– Solicitud.

1.– Las que ostenten la condición de empresa beneficiaria de conformidad con lo establecido en esta Orden para poder acceder a las ayudas previstas deberán presentar una solicitud y demás documentación complementaria, en la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI), o en los lugares especificados en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el plazo que fije la resolución de la Viceconsejera de Turismo de convocatoria anual, y estará dirigida al órgano competente para su concesión. La condición para poder ser beneficiaria habrá de mantenerse hasta el momento del abono de la subvención.

2.– Un modelo de solicitud y formularios serán facilitados por Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI), o podrá descargarse en la dirección de Internet www.eragintza.net, una vez efectuada la convocatoria de las ayudas mediante resolución de la Viceconsejera de Turismo.

3.– Las solicitudes deberán presentarse en el ejercicio económico en el que se inicie el proyecto de inversión, debiendo indicarse en la solicitud si la ejecución es anual o plurianual, desglosándose, en este ultimo caso, los importes previstos para cada ejercicio, y en las mismas no podrán incluirse las inversiones realizadas en ejercicios anteriores, con excepción del supuesto contemplado en el artículo 2 de la presente Orden.

*Artículo 14.*– Documentación a presentar.

1.– La empresa solicitante deberá cumplimentar una solicitud, que deberá contener información general de la empresa, así como:

a) Memoria detallada del proyecto de inversión en la que se incluirá el plan de viabilidad económico-financiero y laboral, plazos para su realización, y en su caso, proyecto arquitectónico del establecimiento, con memoria y planos.

b) Escritura de Constitución, fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal, y fotocopia del poder de representación de la persona solicitante, excepto si los mismos obran en poder del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y no ha habido cambios.

c) Copia de las Cuentas Auditadas del último ejercicio, o en su defecto, las dos últimas declaraciones del Impuesto sobre Sociedades o, en su caso, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

d) Cuando se den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias por los beneficiarios de subven-

urriaren 7ko Aginduan ezarritakoa betetzen denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, betiere eskatzailearen berariazko baimenarekin, zuzenean eskatuko dizkiete zerga-arloan eskudunak diren organoei laguntza eta diru-laguntzen onuradunek zerga betebeharrak bete dituztela ziurtatzen duten agiriak ematea; baimen hori espedientean jasota ez balego, eskatzaileek ekarri beharko lukete ziurtagiri hori espedientera.

e) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dauden ziurtagiria.

f) Jarraian adierazitako alderdiak egiazkoak diren zinpeko adierazpena; ikuskatze-fasean egiaztatu ahal izango dira horiek:

– Eskabidea aurkeztu zen aurreko ekitaldiko abenduaren 31n plantillan zegoen langile-kopurua, hil horretako TC2 agiriaren arabera.

– Fakturazio-kopurua, eskabidea aurkeztu aurreko ekitaldiko abenduaren 31n.

– Urteko balantze orokorraren kopurua, eskabidea aurkeztu aurreko ekitaldiko abenduaren 31n.

– ETE ez den ezein enpresak edo enpresa batzuek elkarrekin enpresaren kapitalean zuzenean edo zeharka %25etik gorako partaidetzarik ez izatea.

– Inbertsio-proiektu berarentzat beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatu edota hauengandik jasotako laguntzak.

2.– Enpresa eskatzaileak zinpeko adierazpenean gezurrezko daturen bat jartzen badu, administrazio-zigorrak eta zigor penalak ezarri ahal izango zaizkio, indarrean dagoen zigor-araubideari jarraituz.

3.– Nolanahi ere, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuak (SPRI, S.A.) enpresa eskatzaileari beste edozein agiri edota informazio eskatu ahal izango dio, beharrezkotzat jotzen badu, hark aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta tramitatu ahal izateko. Arau honetan berariaz aurreikusi ez diren gaietan, azaroaren 26ko 30/1992 Legean (Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) xedatutakoa aplikatuko da.

*15. artikulua.–* Eskabideen azterketa.

1.– Eskabidean jarri beharreko daturen bat aldatu dela edo aurreko artikuluan aipatutako agirietakoren bat falta dela antzemanez gero, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuak (SPRI, S.A.) errekerimendua egingo dio enpresa interesatuari eta 10 eguneko epea emango dio akatsa konpontzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko; halaber, ohartaraziko dio hala egiten ez badu eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko dela, Turismo sailburuak ebazpena eman on-

ciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siempre que cuente con la autorización expresa del peticionario, solicitará directamente a los órganos competentes en materia tributaria la expedición de certificación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias por los solicitantes de las ayudas y subvenciones; en el supuesto de que no constara en el expediente la citada autorización, son los solicitantes quienes deberán aportar el mencionado certificado.

e) Certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.

f) Declaración jurada respecto a la veracidad de los siguientes aspectos, que se podrá comprobar en la fase de inspección:

– El número de trabajadores y trabajadoras en plantilla existente a 31 de Diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud, según TC2 de este mes.

– La cifra de facturación a 31 de Diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud.

– La cifra de su balance general anual a 31 de Diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud.

– Que no se encuentra participada, directa o indirectamente, en más de un 25% de su capital por una empresa que no sea PYME o conjuntamente por varias de ellas.

– Las ayudas que para el mismo proyecto haya solicitado y/o recibido de otras instituciones públicas o privadas.

2.– Si la empresa solicitante falseara cualquiera de los datos incluidos en la declaración jurada anteriormente mencionada se verá sometido al régimen sancionador, tanto administrativo como penal, vigente.

